



2026ko 61. BEHOBIA - SAN SEBASTIÁN

PATINATZAILEEN ARAUDIA

1. artikulua

Behobia - San Sebastián 2026 patinetan egingo den proba **korrikalarien araudiaren** (**Ikusi hemen** araudi osoa) arabera ospatuko da, honen ondoren doazen gehigarriekin gainera.

Izen emateari dagokionez araudi orokor hori jarraitu beharko da, baina, **Salbuespen gisa, jubenil kategoriako patinatzaile federatuek** parte hartu ahal izango dute, baldin eta beren klubak patinatzaile horiek goi-mailako patinatzailetzat jotzen baditu. Klubak bere gain hartuko du kirolari horiek proba behar bezala garatzeko behar adina gaitasun izatearen ardura, eta ez dute podiumik edo bereizketarik lortuko, salbuespen berezia delako.

2. artikulua

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Gainontzeko babesgaiak gomendagarriak dira.

Lerroko patinetan edo tradizioaletan (quad) bakarrik onartzen da partehartzea, gehienezko luzera 50 cm izanik.

ERABAT DEBEKATUTA dago makilak erabiltzea.

3. artikulua

Dortsala **aurrekaldetik** eraman behar da, bai bularrean zein izterrean, bai zenbakia baita babesleen izena garbi ikusten direlarik.

Dorsal-pegatina izterrean jarri beharko da.



4. artikulua

Patinatzaileen irteera 9:35tan izango da Behobian.

Patinatzaileen **helmuga 10:55etan itxita** geratuko da Boulevardean.

5. artikulua

Sailkatzeko gehienezko denbora **ordubete eta hogei minututakoa (1h 20')** izango da, aurreneko patinatzailearen irteera denboratik hasita. Denbora hau baino gehiago egiten duten patinatzaileak ez dira sailkatuak izango. Gutxieneko batz-besteko abiadura 15 km/h-koa da.

Lehenengo korrikalarien aurretik doan motorrak **harrapatutako patinatzaile guztiak** ezingo dute lasterketan jarraitu, eta **ibilbidea utzi** egin beharko dute.

6. artikulua

Ibilbidean zehar zenbait ordutegi-kontrol puntu izango dira. Puntu hauetatik behar baino beranduago pasatzen diren patinatzaileak proba utzi egin beharko dute.

Denbora mugak eta tokiak hauek dira:

- **km 05 9:55**
- **km 10 10:15**
- **km 15 10:35**
- **km 20 10:55**

7. artikulua

Behobia - San Sebastián patinetan lasterketa herrikoia bat da, hala ere **gutxieneko oinarri fisiko zein teknikoa** eskatzen du. Ibilbidean zehar antolatzaile eta epaileak egongo dira, behar den gutxieneko maila fisikoa zein teknikoa ez duten patinatzaileak kaleratzeko gaituak direnak, beste partaideei zein beraien buruei kalterik sortu ez dezaten.



Nahiz eta herrikoia izan, Behobia - San Sebastián lasterketa bat da, **EZ paseo lasai bat**. Beraz, behar beharrezkoa da patinen gainean frenatzen eta taldean moldatzen jakitea, eta lasterketa emandako epean bukatzeko beharrezkoa den baino batz-besteko abiadura azkarrago batean joateko gai izatea.

8. artikulua

Gutziz debekatuta dago bizikleten zein beste ibilgailuen aspirazioa aprobetxatzea, baita ere ibilgailu horiei heltzea, sailkapenetik at geratzeko arrazoia dela eta.

9. artikulua

Patinatzaile batek, edo patinatzaile talde batek, aulkidun lasterkari bat (edo parte-hartzaileen taldea) harrapatzera doanean, garaiz abisatu egin behar du, eta maniobra seinalizatu, aulkidunari kalteri egin gabe, ezta espero ez den maniobra eginez.

10. artikulua

Behobia - San Sebastián patinetan lasterketan parte-hartzaile edozein eta guztiak araudi orokorreko zein berezi honetako araudiak errespetatzeko konpromezua hartzen du, bereziki **proba uzteari** dagokion puntuan epaileek egokitzat jotzen ez badute bere maila tekniko/fisikoa, **gutxieneko ordutegia jarraitzeko gai ez bada** edo aurreneko korrikalariaren aurretik doan motorrak harrapatuta bada.

Puntu hauetan arau-haustek hurrengo 2 urteetan proban izen-emateko debekua izango dutelarik lotuta.